



Neure gorputz desegina
Bilde uen politikiko phagoen itzalpera...

MANEX
ERDOZAINZI-ETXART

HERRIAREN POETA

Agurtzane Ortiz Lopetegi

elkar
LURRA ETA JENDEAK

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
BI HITZ, SARRERA GISA	11
BIOGRAFIA.....	17
Hurtzaroa (1934-1950)	19
Gaztaroa, frantziskotar ikasle (1951-1958).....	22
Apaizgoa, lehen lanak eta goi-ikasketak (1958-1966)	27
Euskal Herrian apaiz.....	28
Probintziako idazkari eta Euskaldun Gazteriaren	
Omonier	29
Enbata mugimenduaren sorrera.....	31
Psikologia ikasketak Parisen (1965-1966)	34
Tolosan irakasle (1966-1972)	36
Pariseko 68ko maiatzaren oihartzunak.....	38
Euskal Herriaren egoeraz zenbait ohar eta proiektu	
berri	41
Euskal Herrian berriro (1972)	44
Anaitasuna anaidiaren sorrera	44
Fededunak taldea	47
Gau-eskoletako irakasle.....	54
Akitaniako probintzial (1978).....	56
<i>Herri</i> <i>Herri</i> astekaria	59
Azken urteak.....	60
IDAIZLEA ETA BERE OBRA	67
Literatur hastapenak eta bilakaera	71
Erdozaintziren poetika	85
Erdozaintziren obraren ezaugarri estilistiko nagusiak	95
Poesia: tradizioaren erduetatik molde berrietara	96
Prosa lirikoa. <i>Gauaren atzekaldean</i>	124
Erdozaintziren unibertso poetikoa	143
Poesia naturalista.....	144

Etxea.....	145
Amaren eta emetasunaren irudiak	153
Lurra eta Natura	166
Haritza, zuhaitz sakratua	176
Poesia humanista. Hiria.....	191
Poesia soziala	211
BIBLIOGRAFIA ITURRIAK	233
Erdozaintziren idazlanak	235
Erdozaintziri buruzko bibliografia	241
Bibliografia orokorra	245

HITZAURREA

Joxe Azurmendi

Manex Erdozaintzi-Etxart frantziskotar poeta euskaldunaren egintza enblematikoena, seguru asko, bere “erretiratzea” izan da Donapaleuko komentutik, berak eta beste bi lagun frantziskotarrek Arraforttonea etxean sortu zuten Anaidira, Zuberoako Domintxinen. Anaidi txikiari Anaitasuna izena ipini zioten: Manex, Mattin Bellemur eta Santos Beloki hiru fraideen anaitasuna; fraideen eta herritarren anaitasuna, batez ere fraideen eta langile laborarien anaitasuna; eta Iparralde eta Hegoaldearen anaitasuna. Enblematikoena diot, egintza horretan bere ideal erlijiosoak, sozial eta politikoak, bere atxikimendua euskararen herriari eta sentsibilitate poetikoa, nolabait bere humanitatea, nortasun osoa, biltzen delako. Bestalde, Manexen alderdi horiek denak bere poesian manifestatzen dira, orriotantxe Agurtzane Ortizek esku fin-finez ikusarazten digun moduan.

Erretiratu kakotx artean idatzi dut hor goian, kasuak anbiguitate bitxi bat duelako, Manexen espiritualitatea ezagutu ez duenarentzat. Manex frantziskotarra zen. San Frantziskok ez zuen nahi bere jarraitzaileek komentuen edukitzea, jabeak izatea alegia, ezerrenak, eta etxearenak gutxiena, etxejabea etxeari estekatua gelditzen baita, bere jabetasunaren esklabo. Fraideek txoriak bezala libre izan behar zuten. Historiak eta Erromako Elizaren diziplinak jakina da beren legeak inposatzen dituztela, eta mendeen poderioan San Frantziskoren fraideak (*fraireak*, okzitanoz esanda; *anaiak*, euskaraz) txorien askatasuna galdu eta komentuetan jarri ziren bizitzen. Handik hara, herri xume pobreak emariz baino gehiago benefaktore aberats batzuen dohaintzaz, komentu geroz eta monumentalago asko eraiki da (ikus Erriberri/Olite, Zarautz), zitadela antzera, fraideak egiaz herriaren erdian herriarengandik apartatu egiten duena. Manexek, bada, kalerriko komentutik, Donapaleun, handik sei kilometrora zegoen baserriko etxera “erretiratuz” anaidiarekin,

herriaren erdian nahi zuen sartu, ez alden, eta frantziskanismoaren iturrietako jatortasunera itzuli nahi zuen une berean, edo berdin dena, hastapenetako kristautasunera. Helburuak: frantziskanismo autentikoa bizi, lanetik eta anaidiaren ondasunen komunismotik bizi, herri langilearekin berdindurik eta loturik bizi; hots, Elizan, baina libre, eta Euskal Herriaren askapen sozial eta nazionalaren alde borrokatzen ari zirenekin ere bat eginik bizi.

Adierazgarria da Domintxineko Anaidia sortzeko parada bera nola agitu zen; Kristiane Etxaluzek gogoratu du pasadizoa. Frantziako Gobernuak Hegoaldeko errefuxiatu politikoak Iparraldetik kanporatu zituela-eta, 1972 urtea zen, Baionako katedralean eta Mauleko elizan gose grebak antolatu ziren haien itzulera eskatuz. Maulen zegoen Kristiane Etxaluz bera, eta hara non lotu zaion gose grebari fraide bat ere, Mattin Bellemur. “Arratsak luzeak ziren, eta elgarren berri jakiteko denbora bagenuen. Hor zaukun erran zer xede zuten: hiruzpalau fraile frantxiskanoen artean anaidi baten sortzea komentutik kanpo, eta hortarako etxe bat xerkatzen zutela Donapaleuko inguruetan, alokairu merke baten truk. Lan eginez bizi gogo zuten. Denbora hartan apezan alderat mihi gaixtoa izanagatik, asmo horrek lilluratu ninduen, eta nere buruari erran ere bai: komunitate bat, anaidi bat: 68ko maiatz hortako usain ona zekarren..., apez langileak: horrek, berriz, inarosten ahal zuen xuri-gorrien berexkerietan zagon gure laborantzako gizarte hertsia, eta behala eskaini nion Arraforttonea bere asmoaren betetzeko”.

Berehalaxe Domintxineko anaidi txikia erreferentzia zentrala bilakatu da Iparraldeko bizitza erlijiosoan nahiz kulturalen, eta gizarte mugimenduetan, gazteriarenetan bereziki. Arazo sozial edo familiarrengatik izan, drogarengatik, politikagatik, atek beti zabalik zeuden anaidira etorri gura zuen ororentzat. Inori ez zitzaion galdetzen nondik edo zergatik zetorren. Han egon zen egunetan, isil askoa, Zizurkilgo mutila, Joxe Arregi, etxeko lanetan laguntzen eta anaiekin bizitzen. Iluntze batean despeditu eta joan egin zen, eta anaiek haren berri jakin zuten hurrengo, torturapean hila zela izan zen.

Baina ez gara Manex frantziskanoan luzatuko. Goazen idazle eta poetarengana.

50eko urteetan egon den produkzio literario apurra, autoreei gagozkien bezainbatean, gerra aurreko mugimenduaren hondarra kontsidera genezake gehienbat: Orixe, etab., pentsaera eta literatura tradizionalen biziraupena. Autore berrien kasuetan, aldiz, Errepublika espainoleko gerra zibila eta Bigarren

Mundu Gerra ostekoetan, eten bat nabaritzen baita, beti interesgarria hasieretako baldintzen eta kontzientziaren azterketa da. Europa zaharra (nahiz bonben pean lurjoa!) berria da, eta pentsamenduan eta literaturan ere hasiera berri bat dago, modu diferenteetan izan arren Iparraldean (Frantzia berritunahi argitsuaren pean: marxismoa, existentzialismoa, etab.) eta Hegoaldean (Espainia hits frankistaren pean). Txillardegiri bere lehen saio eta nobeletan nabaritzen zaion gisan, “hastapen” berriaren kontzientzia du Manexek ere. Euskal kultura berri baten beharra mundu berrirako (hau dena hemen baino hobeki nabarmendua Agurtzane Ortizen tesi doktoralesan bertan egiazta daiteke): ziborrari begirako euskaltzaletasun folklorikoa gainditu beharra, munduari begiratu eta munduko arazoan araberako euskaltzaletasuna garatu beharra; ez jauntxoan, baina laborarien eta langileen Euskal Herri bat eraiki beharra. Manexena poesia soziala izango da. Eta soziala izango da lurraren eta naturaren poesia intimoa denean ere.

Agurtzane tesi doktoralesan erakutsi zuen, nola Manex euskal kontzientziara giro intelektual ezkertiar batean heldua den (Mounier-en pertsonalismoa, mugimendu antikolonialak). Horrek denak, bere bihotz handian, San Frantziskoren pobreen aldeko hautuarekin bat egiten zuen. Euskaldun (berezi Iparaldeko laborari, baina baita udatiarren zerbitzari) kolonizatuaren erruki eta higuin zen: euskaldun jende horren “morroi arima”z, mentalitate itxiaz. Eta, bihotza zeriola, ez Mirandek bezalakoa, baina Mirandek bezalaxe, hori askatu nahi zuen. Askatzeko, bere-bere kultura bat sortzera jaikiarazi, hau da, bere-bere kontzientzia batera. “Eskual kultura baten behar-ordu gorrian” kausitzen gara (1956). Zibilizazio berriari “nahi balin badugu eskualdunki ihardoki, nahi balin badugu eskual-gizona salbatu, Eskual Herrian behar dugu kultura azkar bat aphailatu zoinek beharko beitu eskualduna moldatu, jitez dakharzkan dohain aberatsenak ezagutarazi, nasaiarazi, zohiarazi”.

Egia da eta franko ezaguna, lehenago ere Euskal Herriaren egoera erorriaz makina bat negar egon dela, XIX. mendean gero, euskal literaturan eta politikan. Baina ia beti kanpoko erasoak abarrakitu gaituela, deitoratzen zen. Manexek, alderantziz, garbi dauka: modernitatean sartu gabeko herri bat gara, marjinazioan geratua, buruzagitza propio gabekoa (eliteak!)... Herri oinarriak berak dauzkagu kordokatuak. Kanpoko etsaia hor dago eta hor egongo da, hori ez da aldatuko. Barruko etsaia da (geu) aldaraz dezakeguna eta aldatu behar duguna, kanpoko etsaiari aurre egiteko ere.

Manexen poesia irakurtzerakoan lau osagairi erreparatu behar zaio forma poetikoa baino barnago, forma hori ere zertuz:

Haren izaera pertsonala, aiurri gozoa, sentsibiltatea: naturala, batetik, baina baita landu-landua ere, hizkera eta espresioa ere gero halakoxea duela.

Espiritu frantziskotarra: pobre eta txikerren, eta Naturaren aldekoa.

Pentsamendu ezkertiar erradikala, sozialki iraultza espero duena, baina jende xumearena, ez instituzioena.

Ezkerreko pentsaera horren egokitzapen pedagogikoa Iparraldeko laborarien psikologia eta kulturari.

Edo agian hobeto, irakurleak Manexen poesian elementu horiek berez deskubrituko dituela, esan beharko nuke, Agurtzane Ortizek tituluarekin berekin nabarmendu nahi izan duen legez. Herriaren poeta da. Beraz, Mao, Marx baino gehiago. Borroka horretan dauka lekua poesiak. Bordeleko “Frères du Monde” anaien gisara, berak iraultza (espero baino gehiago) eragin egin nahi zuen. Jendea bortxatu gabe. Poliki-poliki, egunez egun. “Egunean eguneko borroka gizonago bilakarazten gaituelakotz”.

BI HITZ, SARRERA GISA

Agurtzane Ortiz Lopetegi

Manex Erdozaintzi-Etxarti buruzko ikerketa egiten hasi nintzenean, haren heriotzaren hamargarren urteurrena betetzen zen. Artean ezezaguna zitzaidan Manex; ezezaguna gizona, eta ezezaguna poeta eta haren obra. Lehen oihartzunak heldu zitzaizkidalarik, berehala ohartu nintzen Manexek arrasto sakona utzi zuela ezagutu zutenen artean, Iparraldeko kultur giroan bereziki; sarritan aipatzen zen haren izena han eta hemen, gogoratua zen eta maitatua ere bai. Bazegoen haren inguruan halako unibertso bat, mundutxo bat, Manexen obra errebindikatu eta itzaletik ateratzea aldarrikatzen zuena.

Aldi berean, unibertso horretan bazegoen sentipen gazi-gozo nahasi bat Manexen inguruan; harekiko miresmena zegoen batetik; esker ona erakusteko beharra bestetik, eta horrekin batera zor bat zebilen guztion gogoan Manexek egindako lan eskergarengatik, bai fraide eta elizgizon gisa, bai kultur gizon izan zen aldetik (literaturan, euskararen sustapenean, gizarte alorrean...).

Giro horretaz kutsaturik, abiatu nintzen, bada, Manex Erdozaintzi-Etxarti buruz ikerketa egitera. Manexekiko zor hura kitatzeko nire aletxoa jar nezakeela otu zitzaidan, eta lehen pausoetan pizgarria egin zitzaidan ideia hori.

Lehenik eta behin, Nafarroa Behereko fraide eta idazleari buruzko informazioaren bila hasi nintzen, haren izatea, pentsamendua eta obra denboran eta espazioan kokatu nahian. Lehenengo arazoa: Manex eta haren lana Iparraldean zen ezaguna, baina ez zen hain erraza Manex Erdozaintziri buruzko informazioa topatzea; euskal idazleei buruzko liburuek eta antologiek ez zuten beti Manexen izena aipatzen, eta egiten zutenean informazio orokorra ematen zuten, orokorregia eta laburregia, nire asmoetarako bederen. Aldizkariak informazio-iturri hobexegoak suertatu ziren, Iparraldekoak nahiz

Hegoaldekoak, Manexek kazetetan idatzi zituen artikuluei eta olerkiei esker baitzen ezaguna garaiko euskaltzaleen artean.

Bila dabilenak beti topatzen omen du zerbait, eta niri ere halaxe gertatu zitzaidan, pixkana-pixkana dokumentazioa pilatuz joan bainintzen: Erdozaintziren egunkari edo egunerokoak, agendak, eskutitzak, gisa guztietako idatziak, eskuizkribuak, txostenak eta dokumentuak, idazlanen zirriborroak eta aldakiak... Ikertzaile aldi hartan, Manex gero eta gehiago ezagutuz joan nintzen, bere dimentsio osoan, edo hobeto esanda, bere dimentsio guztietan.

Manex gizona ezagutu nuen hala, bere kezka eta arrangurekin, eta gauza batek ematen zidan atenzioa behin eta berriz, Manexek zalantza egiten zuela, hausnarketa etengabea zebilela, egiten zuen guztia pentsatuz eta birpentsatuz: “zer egin dut gaizki, zer egin dut ongi”. Asko gustatu zitzaidan bere alderdi hori, beharbada neu ere halatsu nenbilerako, eta zalantzek eta jakin-minak bultzatu ohi dutelako ikasteko eta aurrera egiteko. Manex Erdozaintzirekin identifikatzen hasi nintzen. “Nire Manex” deitzen hasi nintzaion ia konturatu gabe.

Manexek alderdi asko zituen, ordea; kultur gizona zen batetik, bere ekin-tza gizartera bideratzen zuena; fraidea eta apaiza ere bazen, irakaslea, psikologo eta pedagogo ere bai. Baina batez ere Herriko gizona zen: apala, langilea, metodikoa, erraztasun handia zeukana giza harremanetarako, dohain berezia baitzuen horretarako. Eta, aldi berean, Manex idazlea, poeta, ezagutu nuen. Badakigu, orain, argitaratua izan zena baino askoz gehiago idatzi zuela. Bizitza osoa idazten pasa zuen, gazte-gaztetatik, hil arte; idazten eta irakurtzen, literaturaz gogoetatzen eta hitz egiten... Idatzi eta zirriborro horietako asko bere horretan geratu ziren, argia ikusi gabe. Gazte hil zen Erdozaintzi, gogoa proiektu eta egitasmo ederrez betea zeukalarik.

Manexen idatziek eta dokumentuek haren ahotsa ekartzen digute, zuzenean, bitartekorik gabe. Eta haren ahotsarekin, haren lumatik sortutako hitzekin, bidaia luze batean eraman gaitu. Bere barne bidaia batean ez ezik, bere garaiko girora eta gertakarietara ere bai. Hala, ikertzen ari nintzen bitartean, bidaia bat egiten ari nintzela konturatu nintzen, Manexen eskutik.

“Nire Manex”ek bere sorterrira eraman ninduen lehenik, eta han ezagutu nituen haren gurasoak, anaiak, sortetxea eta Ibarla herrian igarotako

hautzaroa, naturari eta laborantzari lotutako giro euskaldunean. Manexen ahotsetik, hurbilekoa sentitzen dugu laborarien giro hura, xehetasunez eta sinbologiaz betea.

Ikasketa eta heziketa-garaia dator jarraian, urtez urte eta ikastetxez ikastetxe, fraide eta apaiz egiteko bide luzea. Manex gaztearen ahotik heltzen zaizkigu garai hartan, 60-70eko hamarkadetan, mundua astindu zuten gertakarien oihartzunak: Aljeriako gerra, Viet-Nam, Txile, Nikaragua, Pariseko 68ko maiatza, frankismoa Espainian... aldi hartako Euskal Herria. Garai hartan jaio nintzen ni. Baina gertaera horien oihartzunak urte askoan luzatu ziren. Eta ondorioak ere bai. Iparraldeko egoera ekonomiko eta kultural larria, euskalgintzaren eta kulturgintzaren eraberritzea eta suspertzea, liburgintzaren indartzea, Ikastolen mugimendua, euskalduntze eta alfabetatze taldeen sorrera, euskal Eliza berri baten aldeko mugimenduak eta taldeak...

Manexen konpromiso soziala agertzen da orduan, haren euskaltzaletasuna, abertzaletasuna, pentsamendu antikoloniala eta antikapitalista, eta hori guztia pentsamendu erlijiosoarekin bat eginik, harmonia oso-osoan.

Baina Manexen ahotsa ez da berea bakarrik. Baztertuen, zapalduen, deserratuena eta indarkeriaren biktimen ahotsak ekarri ohi dizkigu, bai nazio urrunetakoak, baita Euskal Herrikoak ere: euskal gatazkaren ondorioak pairatzen dituztenena, Frantziaren izenean bi Mundu Gerretan parte hartu behar izan dutenena, laborariena, langileena, esplotazioa, lantegien itxierak eta langabezia jasan dituztenena... Erdozaintzi ez zaigu bere sentimendu indibidualak mintzatzen, giza talde baten ahotsa izan nahi du. Hortik liburu honen izenburua, "Manex Erdozaintzi-Etxart, herriaren poeta".

Manexekin egindako bidaian, azkenik, poetaren ibilbide literarioan barrera murgildu nintzen. Poeta gaztearen lehen idatzietatik abiatu nintzen, lehen zirriborroetatik, literatur grinak bultzatuta idatzi zituen haietatik; eta hor bere zalantzak agertzen dira, bere zailtasunak. Hor aurkitu nituen, Manexengan, euskal autore zaharren oihartzunak: Axular, Etxepare medikua, Txomin Agirre, Lizardi, Otaño... Haiengandik zetozen molde tradizionalak nagusi dira lehen idatzi haietan, bai formetan eta bai gaietan. Horiek ziren gure poetaren iturri eta abiapuntu. Eta horien arrastoari jarraiki, erabateko hausturarik gabe, urtez urte eta olerkiz olerki, ezagutuz joan nintzen eredu-tzat edo gidaritzat hartu zituen idazleak; zuzenean edo zeharka, hurbiletik

edo urrunagotik, eraginik izan zutenak Manexengan: Aresti, Mirande, Gandiaga, Salvatore Mitxelena, Joxe Azurmendi, Txillardegi, Daniel Landart... Belaunaldi bat, Erdozaintzirena, kezka, zalantza eta jarrera paretsuak zituzten autoreak bildu zituena, desberdintasunak desberdintasun. Baina Manexen ibilbidea ez da horretan bukatzen, eta haren eskua eta itzala nabarmenak dira ondoren etorri ziren idazle gazteengan, abangoardia euskaldun eta inkorformistaren bideak urratuko zituzten idazleengan, Itxaro Borda eta *Maiatz* aldizkariaren inguruan bildutako gazteengan.

Horien guztien ahotsak entzuten ditugu Erdozaintziren artikulu eta olerki bakoitzean. Guztiek utzi dute zerbait haren idatzietan. Horrela, tradizioz modernitaterako bidaia egin dugu Manexekin: molde zaharretatik molde berrietara, nekazarien gizartetik, lurra, natura eta laboraria zituena protagonista, hiri-gizartera, hiria, kaleak eta fabrikak literatura bihurtu zituena.

Manexen ibilbideari begiratzen diodanean, esker oneko sentimendua etortzen zait. Zordun sentitzen naiz berarekin. Zordun, gure kulturaren eta literaturaren ispilu eta erreferente bat izan delako niretzat. Bere apaltasunean, zerbait jaso, zerbait eman eta zerbait utzi zigun Manex Erdozaintzik. “Gure Manexek”.

Hori besterik ez daukat eskaintzeko liburu honetan, eta hori guztia.